


2026-02-13 BARIKUA / 1.052. ZENBAKIA / 24. URTEA
DURANGALDEKO ASTEKARIA ANBOTO.ORG TOKIKOM



AINHOA RESANO

"Gogotsu nago lana eskualdean erakusteko"

Garoa Bugallo antzezle abadiñarrak 'Nor naizen baneki' lanaren emanaldi hirukoitza du Durangaldean otsailean; lehenengoa gaur bertan, Elorrioko Arriolan / 16



Gaizka Alustiza abadiñarra Metal Groupeko beharginetariko bat da.

"Ez dakigu zer gertatuko den, baina enpresa ixtea da posibleena"

/ 2-3

**40 Minutu Rock
Plateruenera
zabalduta ailegatuko
da hamargarren
ediziora** / 4

**Zaldibarko Acha-
Orbea fabrikatik hiru
behargin kaleratu
dituztela salatu dute
ELak eta LABek** / 11



"LASTERKETETAKO ESTRESA GEROAGO ETA HANDIAGO DA"

Mikel Bizkarrak hamabosgarren denboraldia hasi du profesionaletan. 37 urteko mañariarrak denboraldi amaieran erabakiko du bere etorkizuna. / 20

Mikel Bizkarra, aurtengo denboraldiko lasterketa batean.

Ekaitz Herrera INDUSTRIA

Gaizka Alustiza abadiñarrak hamar urte baino gehiago daramatza beharrean Lebarioko Metal Groupen. Lanean dago berez, Gizarte Segurantzaren alta eginda. Baina hileak daramatza fabrikara joan barik, han ez dagoelako beharrik. Izan ere, Metal Groupeko Lebarioko eta Legutioko enpresak hartzekodunen konkurtsora jo dute orain aste batzuk. Eta, horrenbestez, Alustizaren antzeko egoeran daude Lebarioko 48 behargin eta Legutioko beste 138 bat langile. Etorkizuna airean, enpresa zelan zarratu eta indemnizazioak jasotzeko zain daude.

Zein da enpresako azken ordua?

Enpresak hartzekodunen konkurtsora jo du eta administrari bat dago kudeaketa lanetan. Oraingoz ez da kaleratzerik egon, baina ez dakigu zer gertatuko den. Ez dakigu enpresaren bat ate joka etorriko den, bezeroren bat bueltatuko den, ezta lanera bueltatuko garen ere. Indemnizazioak jasotzeko zain gaude eta horiek zenbatekoak izan behar duten negoziatzen. Egoera honek Metal Groupeko fabrika biri eragiten die, Lebariokoari eta Legutiokoari. Taldeko beste lantegi biak, Astolakoa eta Iurretakoa, auzi honetatik kanpora daude.

Zenbat urte daramatzazu Metal Groupen?

Hamar urte baino gehiago. Erdi mailako mekanizazio zikloa egin nuen lehenengo, eta goi mailako zikloa gero. Ikasketak amaituta, Aldi Baterako Lan Enpresa batek kontratatatu ninduen, eta Metal Groupen hasi nintzen beharrean. Urtebete inguru egin nuen kontratu haregaz. Azkenik, lanaldi hura amaituta, enpresak berak kontratatatu ninduen, eta kontratu mugagabea egin. Hamar urte baino gehiago egin ditut hemen.

Urte horietan guztietan noiz igarri duzu gauzak okertzen hasi zirela?

Iruditzen zait pandemiaren ondoren hasi zirela gauzak aldrebesten. Proiektu berri pare bat egitekoak ginen, baina, azkenean, ez zuten aurrera egin. Makinak erosi ziren, baina gero ez zen proiektuak saltzea lortu. Pandemiatik hona autogintzaren sektoreak jaitsiera bizi duela esango nuke.

Autoetarako piezak egin izan dituzue, beraz.

Autoentzako abiadura-kaxak fabrikatu izan ditugu. Nire beha-

"Itxaroten gaude, enpresak lantegia zelan itxi negoziatzen"

GAIZKA ALUSTIZA MENDILIBAR METAL GROUP ENPRESAKO BEHARGINA

Gaizka Alustiza abadiñarrak hamar urte baino gehiago egin ditu Lebarioko Metal Groupen lanean. Bere egoera fabrikako gainerako langileen erakusgarri da



Gaizka Alustiza abadiñarra Metal Groupeko beharginetariko bat da.

rra, behintzat, horiek mekanizatzea izan da. Volkswagen izan da orain arteko bezero nagusia, eta, dirudienez, orain Txinan aurkitu du hornitzailea. Langileok dugun pertzepzioa da enpresaren kudeaketaren eraginez ez ditugula bezeroaren eskariak behar zen moduan egin. Izan ere, azken urteotan gorabeherak izan ditugu eskarietan. Justu ibili gara batzuetan, eta beste batzuetan ez gara heldu. Hori dela eta, enpresak azkenean joatea erabaki duela uste dugu.

Zelakoak izan dira azken urteak?

Azken urte bietan enpresa diru arazoekin ibili da. 2025eko uztailan, enpresak hartzekodunen konkurtsora jo zuen eta Suitzako Meteorix funtsak erosi zuen, euro baten truke. Langileok pentsatzen genuen gauzak aldatu egingo zirela, enpresa aldatuko zela, baina denboragaz ikusi dugu kudeatzaileak eta plantako arduradunak lehengo eurak zirela. Langile askoren susmoa da bezeroa konturatu egin dela horretaz, eta, betikoak zeudela ikusita, alde egitea erabaki zutela. Egin beharreko galdera honako hau da: zergaitik

"AZKEN BOST HILEETAN, ENPRESAK BIRBITAN JO DU HARTZEKODUNEN KONKURTSORA"

alde egin du bezeroak? Enpresak ez du erantzunik. Bezeroari egotzen dio horren ardura.

Izan ere, azaroan ekoizpenik barik geratu zineten.

Ni neu behintzat laugarren erreleboan egon nintzen 2024ko urritik 2025eko urrira. Gero, hiru errelebotara lan egiteko agindu ziguten, egun batetik bestera. Eta handik aste pare batera, azaro partean, langileok etxean geratu beharko genuela iragarri ziguten. Gerora, eskari txiki bat egon zen, azaro erdialdean, eta langile gutxi batzuek lanera bueltatu behar izan zuten. Baina behin hori amaituta, azaro amaieratik denok gaude etxean, Gizarte Segurantzaren alta hartuta; teknikoki lanean, baina beharrik barik.

Gero, enpresak bigarren jo zuen hartzekodunen konkurtsora.

Uztailan egin zuen lehenengoz, eta orain aste batzuk bigarrenez. Bost hilabeteko epean, enpresak birbitan jo du hartzekodunen konkurtsora. Ez da oso normala. Halako egoera bat enpresa handietan gertatzen denean, instituzio publikoak, demagun Eusko Jaurlaritzako Industria Saila, auzian esku hartzen ahalegintzen da. Hemen, baina, ez da halakorik gertatu.

Eta hemendik aurrera, zer?

Egun batean gauza bat dioskue, eta biharamunean beste bat. Une honetan itxaroten gaude, enpresak lantegia zelan iraungi negoziatzen. Baina bien bitartean beste enpresaren bat agertu daitekeela dioskue, nahiz eta hori oso gatxa izan. Eta agertzekotan, bezeroekin agertu beharko lukeela. Edozelan ere, badirudi enpresa ixtea dela aukerarik posibleena.

35 urte dituzu, baina zelakoa da gainerako langileen profila?

Denerik dago. Batzuk aurre-jubilazio egoeran daude. Beste batzuk gazteak dira, eta esango nuke gehienak 45etik 50 urtera arteko langileak direla. Jakina, bakoitzak bere bizitza du, bere beharrianak ditu, eta gure arteko egoerak askotariakoak dira. Batzuek, adibidez, joatea erabaki dute, eta beste lan bat topatu. Beste batzuek itxarotea erabaki dugu. Izan ere, urtarileko soldata eta indemnizazioa falta ditugu. Hortik aurrera, lana topatu beharko dut. Ikusiko dut non eta zelan.

"Egoera honen 'esklabo' izateari utzi gura diogu"

Metal Groupeko behargin batzuek beste tailer batzuetan topatu dute aurrera egiteko bidea. Baina beste batzuek, 60 urteko adin bueltan daudenek besteak beste, aurretiko erretiroan lortu gura dute irtenbidea. Auziak luze jo dezake

Ekaitz Herrera LANGILEAK

Azken hileetako ziurgabetasunak erabakiak hartzera behartu ditu Metal Groupeko langileak. Askok beste tailer batzuetako atea jo dute lan eske, eta beharrean daude gaur egun. Beste batzuk, ostera, zain daude, indemnizazioak kobratu eta enpresa noiz zarratuko. Eta badaude, tartean, erretiro aurreratua irtenbide legez ikusten dutenak. CCOO sindikatuko Jose Cid ordezkariak adierazi du langileak nekatuta daudela egoeragaz. "Beharginek jada ez dute bizimodua hemen ikusten, eta denbora gehiagorik ez galtzea erabaki dute. Lan egiteko adinean daudenak birkokatzen hasi dira



Lebarioko lantegiko sarrera.

inguruko enpresetan, Inyectametalen, Rheinmetallen", azaldu du Cidek. "Izan ere, enpresako langileen artean halako inpazientzia bat dago. Egoera "esklabo" honi uzteko gogoia dago", gaineratu du.

Momentu honetan, hartzeko-dunen konkurtsoko administraria "datuak batzen" dabilela jakinaz du Cidek. "Asteon hartu dute kargua, eta bankuko kontuez jabetzen dabilta. Hori guzti hori jakin arte ezin ei digute esan noiz ordainduko diguten. Eskuragarri duten aktibo osoa ikusi gura dute", esan du sindikatuak. Izan ere, beharginek kobratu barik dute urtarrileko nomina. Horren zain eta etorri daitezkeen indemnizazioen zain daude. "Hortik aurrera, ez dugu berri gehiago. Plana orain aste batzuetako plan berbera da: dena ixtea. Panorama hori aurrean, langileen iritziz "manifestazioak egiteak ez du zentzu handirik, administratzaile konkurtsalaren kontra ezin duzulako ezer egin. Bere lana egiten dabil", gaineratu du.

Autogintzaren aldaketa

CCOO sindikatuko ordezkariak uste du autogintzaren sektorea

aldatzen egon daitekeela. "Norantz, baina?". Eta erantzun posible bat eman du: "Kontua da konbustio bidezko autoetatik auto elektrikora pasatzeko erabakia hartu dela. Baina hor hutsuneak daude, ez dagoelako definituta noiz eta zelan kendu behar den errekontzako motorra. Eta, jakina, ziurgabetasun horregaz, ibilgailu gutxiago saltzen da. Jendeak ez daki zer auto erosi: elektrikoa oso garestia da, errekontzakoa ez dakizu noiz kenduko duten. Akaso ez gaude garairik onenean", hausnartu du Cidek.

Orain hilabete batzuk arte, Volkswagen enpresa izan da Lebarioko Metal Groupeko bezero nagusia. Baina ibilgailuen etxe alemaniarrek Txinan topatu du orain arte Abadiñon mekanizatzen ziren piezen hornidura. Cidek argi dio bezeroak hor jarraitzen zuen bitartean lantegiko langile kopurua ez zela jaitsi. "Arazoa da ekoizpena Txinara joan dela. Merkeago fabrikatzen dute, eta, horrenbestez, enpresak Europatik alde egiten dabilta", argitu du.

Durangaldeko Okm gida

Zabaldu zure negozioa lau haizeetara

Durangaldeko OKm gida erakusleiko ezin hobea duzu eskualdeko merkataritza eta zerbitzuetan.

Jarri gurekin harremanetan konpromiso barik:
688 731 402 telefonon

Okm:
batzen gaituen distantzia

www.anboto.org/gida

"Jaialdiko jendeak egiten du eder 40 Minutu Rock"

ANDREA ARAGON, ASIER ANGULO ETA MARTIN ARRASATE 40 MINUTU ROCK

40 Minutu Rock jaialdiak hamar urte beteko ditu datorren astean. Angulo, Aragon eta Arrasate buru-belarri dabilta azken asteotan, festibaleko antolakuntza lanetan

Ekaitz Herrera DURANGO

"Familia handi bat". 40 Minutu Rock jaialdiko antolatzaileek kidetza hori sentitzen dute urteetako lan boluntarioaren ondoren. ANBOTO hiru kidegaz batu da jaialdia ospatzeko aste baten faltan: Asier Angulok sukaldeko ardura izango du, Andrea Aragon azpiegitura lanez arduratuko da, eta Martin Arrasatek artisten kamerinoak kudeatuko ditu. Euren batera, eskualdeko beste 50 boluntario dabilta astero-astero lanean, festibalean ezertxo ere falta ez dadin.

Aurtengoa 40 Minutu Rocken hamargarren urteurrena izango da. Zein da festibalaren osasuna data seinalatu horretan?

Asier Angulo: Galdera potoloa da, hausnarketa eskatzen duena. Esango nuke jaialdiaren osasuna beti egongo dela lotuta herrigintzan lan egiteko prest dagoen jende kopuruari. Gaur egun ez da erraza lan boluntarioa egiten duen jende multzo handia topatzea, eta iruditzen zaigu urtero lortzen dugula hori. Talde antolatzaile sendo bat dagoen bitartean, boluntarioak lanerako prest dauden bitartean, 40 Minutu Rock osasuntsu egongo da.

Zein da hamar urte hauen balantzea?

Andrea Aragon: Balantze positiboa egiten dugu. Iruditzen zait



Andrea Aragon (ezkerrean), Martin Arrasate (eskuman) eta Asier Angulo (behean).

"ALDARRIKATZEKO GUNEA ESKAINIKO DUGU, ETA EGINDAKO LANARI AITORTZA EGINGO DIOGU"

erreferentzialtasuna lortu dugula, eta gaur egun horrelako zeozer lortzea ez dela erraza. Era berean, ipinitako helburuak betetzen joan gara. Batzuetan gehiago, beste batzuetan gutxiago. Baina urtero izan dugu Etxerati zein Harrera

elkarteari gure ekarpena egiteko aukera. Aurtun ere, aurreko edizioetako helburuari eutsiko diogu. Aldarrikatzeko gune bat eskainiko dugu, eta egindako bideari errekonozimendua egingo diogu.

Izan ere, jaialdiak euskal preso eskubideekiko elkartasuna du oinarri.

Martin Arrasate: 2018an 300 euskal preso, deportatu eta iheslari zeuden, eta gaur egun 100 pasatxo. Hamar urte hauetan egoera hobetu egin da, baina errealitatea ez da horren ideala.

Izan ere, kalera irten edo Euskal Herrira etorri direnak errealitate berri bat dute orain: gizarte-ratzeko beharrezkoa. Askok bizitza berri bat hasten dute, eta behar berriak dituzte: ikasketak, gida-baimena, etxebizitza, arreta psikologikoa... Horrenbestez, gertatzen dabilta kaleratze eta hurbilketa prozesuetan beharrezkoa da bizi baldintza duinak bermatzea. Hori lortu gura dugu, hain zuzen ere, Harrera elkartearen bitartez. Eginbide horretan kokatzen dugu 40 Minutu Rock.

Zein nobedade izango du aurtengo jaialdiak?

Andrea Aragon: Plateruena gure egingo dugu asteburu oso batez. Horixe izango da nobedade nagusia. Hamargarren edizioa izanda, zeozer berezia egin gura genuen, eta, horregaitik, datorren barikuan ekitaldia eta Ruper Ordorika izango ditugu. Izan ere, iazko edizioan Fermin Muguruzak kontzertua bertan emateak sentazio positiboa utzi zigun. Bestalde, aurtun lehenengoz, ez dugu karpark ipiniko Landako Guneari atxikita. Plateruena eremu handiagoa da, eta nostalgiko samarrak ere bagarenez, ideia polita iruditu zitzaigun antzokia jaialdiko gunea izatea. Horrenbestez, Plateruena bere egitarau propioa izango du aurtun, karpark orain arte izan duen moduan.

Festibalera joateko zailtasun dabilenari, zer esan?

Asier Angulo: Landako Gunean ez dago beste jaialdietako su artifizialik edo ikuskizun erraldoirik. Baina bakoitzak bere sentituko du jaialdia; azken batean, jendeak egiten duelako eder jaialdia. Horren parte sentitzea ederra da. Beraz, horren parte izatera gonbidatzen dugu jendea, eta babesten ditugun ideiak, haiek ere badirenak, adieraztera.



Prestaketak Plateruenean.

Elkartasun dezibelioak Durangon

40 Minutu Rocken aurtengo edizioa hurrengo asteburuan egingo dute, otsailaren 20an eta 21ean, Landako Gunean eta Plateruenean. Barikuan, Ruper Ordorikaren kontzertua eta ekitaldia egingo dira antzokian. Zapatua jaialdiko egun handia izango da. Batetik, honako talde hauek arituko dira Landako Gunean: Zea Mays, Brigade Loco, Merina Gris, Zeker, Kiliki, Naxker, Marte Lasarte, EH Sukarra, Non Servium, Les Testarudes, Neomak, Nafarroa 1512 eta Ez Ez Ez. Plateruenean, formatu txikiagoko artistak egongo dira: Chicabeat & Rockyviolencia, Matah, Labar, Adur, Sembrando Kaos, DJ Pibikens eta Kene.mp3.

Lehen Mailako osasun arretaren "gainbehera" salatu dute

Osasun zentroetako arreta indartzea, giza baliabideak handitzea eta anbulantzia medikalizatua eskatu dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko pentsiodunek manifestazioa egin dute astean, eta Landakoko osasun zentroko atarira eraman dituzte protestak. Lehen Mailako Arreta "gainbehera" dagoela kritikatu dute,

eta beharrezkotzat jo dute "baliabide materialak eta giza baliabideak handitzea", hala nola medikuak eta erizainak. Euren esanetan, horrek aurrez aurreko arreta "egonkortzen" lagunduko luke, baita ordezkapenak

"ezinbestekora murrizten" ere. Era berean, anbulantzia medikalizatu iraunkorra ipintzea eta "Zaintza Publiko, Unibertsal eta Komunitarioaren Sistema berri bat ezartzea" eskatu dute. Pentsiodunen berbetan, beharrezkoa da "Osakidetzaren eta gizarte zerbitzuen zaintza eta mende-kotasun zerbitzuen arteko koordinazio eraginkorra bermatzea, behar sozio-sanitarioei erantzun osoa emateko". Osasun sistema publikoa, unibertsala eta kalitatezkoa denfendatu dute.



Astelehenean egindako protesta. DURANGOKO PENTSIODUNAK

Sagardo dastatzea Durangoko Miñen, Berbalagunen eskutik

E.H. DURANGO

Berbalagunek euskara praktikatzeke eta sagardoari buruz ikasteko jardunaldia antolatu du. Otsailaren 18an sagardo dastatzea egingo dute Goienkaleko Miñe tabernan. Saioa Maore Ruizek gidatuko du. Taberna horretako arduradunetari bat izateaz gainera, Bizio sagardo markaren sortzaileetari bat ere bada. AEKko iturriek jakinarazi dutenez, Ruizek hiru-lau sagardori buruzko azalpenak emango ditu. Horrez gainera, mokaduak ere egongo dira. Leku mugatua dela eta, hitzorduak 639 400 786 whatsappen egin behar dira. Saioa 18:30ean hasiko da.

Mendizabalgo presa botako dute, uholde arriskua murrizteko

"Oztopo hidrauliko moduan jokatzen du eta horrek gainezkatzeak sor ditzake", arrazoitu du erabakia URAk

Ekaitz Herrera IURRETA / DURANGO

URAk Iurreta eta Durango arteko presa botako du, "uholde arriskua murrizteko" eta "ibaia-aren ahalmen hidraulikoa hobetzeko". Presa, Mendizabalgo presa legez ere ezaguna, XIX. mendekoa da eta Miangolarra familiaren errotari zerbitzua emateko sortu zen. Baina gaur egun errotak erabilerarik ez duelako eta Ibaizabal ibaiaren ibilgua "estutzen" duelako, URAk presa kentzea erabaki du: "Oztopo hidrauliko gisa jokatzen du eta ur handietan emariaren

ur-lamina handitzen du; horrek gainezkatzeak sor ditzake", arrazoitu du erabakia URAk.

Uraren Euskal Agentziak gaineratu duenez, esku hartze horrek mesede egingo die Iurretako herriguneari eta Durangoko San Inazio auzoari. "Uraldiek kalteak eragin dituzte eremu horietan; izan ere, ibilguaren morfologia aldatzeak tapoi hidrauliko bat kentzen du eta errotak ibaiaren hustubide-ahalmena hobetzeko aukera ematen du, baina gaur egun ez du erabilerarik, eta oztopo



Iurretako eta Durangoko alkateak, URAko Asier Lopez zuzendariagaz.

hidrauliko gisa jokatzen du", azaldu du URAk.

Orain egun batzuk, Durangoko alkate Mireia Elkoroiribe, Iurretako alkate Oskar Koka eta URAko zuzendari nagusi Asier Lopez Etxebarria presa-

ren inguruan batu ziren botatzeko lanak martxan ipintzeko. Zehaztu barik dago lanak noiz hasiko dituzten, baina URAk iragarri du fase bitan egingo dituela eta 11 aste iraungo dutela.

San Faustoko 16 etxebizitza sozial alokagai ipini dituzte

Logela bateko eta biko etxebizitzak daude aukeran. Izen emateak martxoaren 9ra arte egin daitezke

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangarrek zabalik daukate San Faustoko 16 udal etxebizitzetan alokairua eskatzeko aukera. Inskripzioa egiteko epea martxoaren 9ra arte dago zabalik. Etxebizitzak Undatorre kaleko 8. zenbakian eta Jesus Maria Pedrosa kaleko 7. zenbakian daude. Logela bat edo bi dituzte, eta kasu batzuetan baita trastelekua edo aparkalekua ere. Durangoko Udalak azaldu duenez, kolektibo kalteberak lehenetsiko dituzte etxebizitzak esleitzerako orduan. Bizitoki



Jesus Maria Pedrosa kalea.

duin eta eskuragarria eskaini gura dute kolektibo horientzat. Hori horrela, udalak honako ezaugarri hauek hartuko ditu kontuan eskaerak baloratzeko: diru-sarrerak, bizikideen kopurua, genero-indarkeriaren biktimak, desgaitasuna duten pertsonak, guraso bakarrek familiak edo 4 kide arteko familia ugariak, beste kolektibo kaltebera batzuk, eta Eskatzaileen Erregistroko antzinatasuna.

Etxebizitzak talde hauen arabera esleitu dituzte: 8 etxebizitza 35 urtetik beherako gazteentzat, eta bina etxebizitza desgaitasuna duten pertsonentzat (egokitu bakoak), 70 urtetik gorakoentzat, guraso bakarrek familientzat eta genero-indarkeriaren biktimentzat. Informazio gehiago udalaren atarian eskuratu daiteke.

LABUR-LABUR

Uretako puzgarriak Landakoko igerilekuan

Zapatuan, uretako puzgarrien beste jardunaldi bat egingo dute Landakoko igerilekuan. Puzgarriak 16:30etik 19:30era egongo dira erabilgarri, ordu erdiko txandetan antolatuta. 5etik 12 urtera arteko umeek parte hartu ahal izango dute. Beharrezkoa da alde zuzenetik kiroldegiko harreraren edo Durango Kirolak atarian izena ematea.

Abesti feministetarako azken eguna

Gaur amaituko da Durangoko Abesti Feministen Lehiaketarako sorkuntzak aurkezteko epea. Bakarleri edo talde bakoitzak gehienez ere 10 minutuko abesti bi aurkeztu ahal izango ditu, jatorrizkoak zein bertsioak. Lanok Durangoko Udalaren egoitza elektronikoan aurkeztu behar dira.

San Inazioko txintxaunak, estaltzear

Durangoko Udalak martxan ipini ditu San Inazioko parkea hobetzeko lanak. Proiektuak aterpe bat eraikitzea aurreikusten du. Egiturak 350 metro karratuko azalera hartuko du eta txintxaunak estaliko ditu. Obrek bost hilabete iraungo dute, eta, bien bitartean, parkearen zati bat zarratuta egongo da. Tirolinaren eremuak eta joko naturalek zabalik jarraituko dute. Udalak 244.470 euroko inbertsioa egingo du.

aLUZina

Nacho Diago
Otsailak 21, larunbata · 19:00etan

Sarrera orokorra 8€ / 6€ bazkideentzat
16 urte azpikoak 4€ / 3€ bazkideentzat

San Agustín KULTUR GUNEa

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus



UBIDEKO UDALA

Ubideko Udalaren Herriko taberna ALOKATZEN DA

Kontratazioa Euskadi plataforman-Kontratatzailereen profilean igota dago lizitazioa: 8088-2026-00001.

Aurkezteko epea Otsailaren 25an 14:00etan bukatuko da.

Eskaintzak udalarean aurkeztuko ahal dira (helbidea: San Juan 4), 9:00etatik 14:00etara.

- Lizitazioaren oinarriko aurrekontua 24.000,00 eurokoa da + BEZa; izan ere, errenta hilean 400,00 eurokoa da + BEZa.



Aitortza emakume zientzialari zornotzarrei

Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunean, 2026ko Marixelarre saria STEAM arloan ikerketa lanak egiten dituzten hainbat emakumek jasoko dute; agerraldian, Greenpower proiektuan dabiltzan emakumek ere parte hartu dute

Aritz Maldonado ZORNOTZA

2026ko Marixelarre saria STEAM esparruan (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arte Diseinua eta Matematika) ikerkuntzan lan egiten duten emakume zornotzarrek jasoko dutela iragarri du Zornotzako Udalak aste honetan. Agerraldian Maider Sierra Basurtuko Ospitaleko Onkologia Erradioterapiako medikuak (brakiterapian eta erradioterapia egokitzailean espezializatua) eta Estibalitz Asua Ingeniaritza Fisikoan doktorea eta EHUKo Zientzia eta teknologia fakultateko dekanordeak parte hartu dute; Conchi Contreras Lauaxetako irakasleak eta Marivi Terán El Carmeloko irakasleak ere jasoko dute saria. "Sarri entzuten da: 'emakumeak zergaitik zientzian?', eta nire galdera da 'emakumeak zientzian zergaitik ez?'. Oso diziplanatuak gara eta fakultateek eta teknologiek emakumeak behar dituzte", azaldu du Asuak. Sari ba-



Marixelarreko sarituak, udal ordezkariak eta ikasleak, agerraldian.

naketa martxoaren 8an egingo dute, 13:00etan, Zubiondo parkeko karpako ekitaldian.

Greenpower, martxoaren 7an
Agerraldian, Greenpower proiektuan parte hartzen duten Nerea

Antón, Xizin, Paula Fernández eta Ane Antón Lauaxetako ikasleek ere parte hartu dute. Azken bi hauek euren proiektua erakutsiko dute martxoaren 7an egingo den auto lasterketan; batxillerreko ikasleak dira.



Joan zen barikuko elkarretaratze irudi bat.

Zornotzan elkarretaratzea egin dute lan heriotza salatzen

Baso lanetan zebilen pertsona bat hil da Zornotzako Ergoien auzoan, Bizkargi mendira igotzeko eremuan

A. M. ZORNOTZA

Ernaik, Sortuk eta LAB sindikatuak deituta, Zornotzan elkarretaratzea egin zuten joan zen egunean gertaturiko lan istripua salatzen. "Euskal langileen bizi baldintzak defendatzeko eta bizi duten prekaritatea hiltzailea dela salatzen batu gara", adierazi zuten deitzaileek. Baso lanetan zebilela, pertsona bat hil zen Zornotzako Ergoien auzoan, Bizkargi mendira igotzeko eremuan; Ertzaintzaren iturrien arabera, "zuhaitz batek jota" hil zen. Ertzaintzaren mendiko erres-

kate taldea abisua jaso eta atoa abiatu zen istripuaren tokira. Zauritua suspertzen ahalegin du arren, ez zuten lortu.

Bestalde, Zornotzako EH Bilduren, Elkarrekin Amorebietaren eta PSEren udal taldeek ohar bateratua kaleratu zuten istripua salatzen. Hiru alderdiek elkartasuna eta babesa adierazi zizkieten langilearen senide, lankide eta lagunei. Horrez gainera, lan arriskuen prebentzioan "jardunbide egokiei buruzko programetan" laguntzeko eskatu zieten erakundeei.

Belaunaldien arteko topaketa "arrakastatsua" Elorrioren

Elorrio Lagunkoia Txantxibiri eta Belaunaldien Artean ekimenek antolatu dute gazte eta adinekoen topaketa



Topaketako argazki bat. ELORRIOKO UDALA

A. M. ELORRIO

Elorrioko kaleetan zehar egin dako ibilbidean, gazte eta adineko elorriarrek herriaren eta herriarren iraganaren eta orainaren ezagutza partekatu zuten Elorrio Lagunkoia Txantxibiri eta Belaunaldien Artean ekimenek otsailaren 5ean egindako topaketan. Kaleetan zehar, bertako dendak eta haietan lehengo zer saltzen zuten ezagutu ahal izan zuten, eta garaiari buruzko bizimoduaz gogoeta egin zuten. "Oso esperientzia aberasgarria izan zen parte hartzaile guztientzat, eta giro atsegina eta hurbilekoan garatu zen. Jarduerak harrera bikaina izan zuen eta antolatzaileek oso balorazio positiboa egin dute. Etorbizunean antzeko topaketa berriro egiteko asmoa adierazi zuten ohar baten bitartez.

Errepidea konpontzeko lanak hasi dituzte Sarria auzoan

Sarriako Arria-Errotabarria bide zatia konpontzeko lanak hasi dituzte aste honetan; bide mozketak eragin dituzte

A. M. BERRIZ

Udalerriko auzoetako azpiegiturak hobetzeko asmoz, Sarria auzoko bidea konpontzeko lanei ekin diete aste honetan. Arria eta Errotabarria arteko zatia konpontzeko dute. Lanen helburua segurtasuna handitzea eta bizilagunen irisgarritasuna bermatzea da. Berrizko Udalaren berbetan, obren iraupena lau astekoa izango da gutxi gorabehera, eta ezustekorik ezean eta eguraldiak lagunduz gero, martxoaren hasiera aldera amaituta egotea itxaroten dute. Denbora tarte horretan,

beharginak ibiliko dira inguruan, auzotarrentzako beharrezkoa den bide hau berritzen; beraz, inguruko trafikoaren zirkulazioan eragina izango duela aurreikusten da. Bidea itxita egongo ez den arren, udalak une jakin batzuetan bidea moztuta edo trafikoa eten da egongo dela ohartarazi du. Hala ere, bizilagunei ahalik eta kalterik gutxien eragiteko asmoz, udalak mozketak horien berri aldeztu aurretik emateko asmoa agertu du. Barkamena ere eskatu du lanek sortu ditzaketan eragozpenengaitik.

OSASUN GIDA

**Podologia**
PSE: 214/06



OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

**Odontologia**
PSE: 26/22



HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durangoan

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordutegia:
Astelohenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango. Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

**Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA -
INPLANTOLOGIA - KIRURGIA -
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA - ODONTOPEDIATRIA - PADI -
HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

**Fisioterapia**
PSE: 119/13



ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Salo pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

**Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

**Naturopatia eta Homeopatia**

Aurora Julià

HOMEOPATIA • NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218

Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus



**Psikologia**



gure
Hezkuntza zailtasunak

Hezkuntza zailtasunen
diagnostikoa eta esku-hartzea,
diskalkulian adituak.

613 038 933
Andra Mari, 16 ID Durango

**Psikologia**



gure
Psikologia

Helduak-nerabeak-haurrak

- Zure buruan konfiantza sendotzeko •
- Estresa kudeatzeko •
- Zure harremanak hobetzeko •

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

613 05 38 62
Andra Mari, 16 ID Durango

**Optometria**
PSE: 162/13

NAILA ZABALA
AIZMENDI
11567 kot. zk.



keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
- ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com



Muntsaratzeko inguru honetan egin gura dituzte argazkiak.

Alokairu publikoko 84 etxebizitza Abadiñon

Abadiñoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak sinatutako hitzarmen bati eskerrak, Muntsaratzeko alokairu publikoko 84 etxebizitza egingo dituzte. Gobernu taldearen berbetan, "akordioa aurrerapauso handia" da

EAJren eskaria saneamendu proiektuak martxan ipintzeko

Abadiñoko EAJk Astolako eta Laubideta kaleko saneamendu proiektuak martxan jartzeko eskatu dio gobernu taldeari

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko EAJren bozeramaile Mikel Garaizabalek prentsaurrekoa eskaini zuen joan zen astean, Traña-Matienan, Laubideta kalean. "Astola eta Laubideta auzoetan egiteke dauden saneamendu proiektuak berehala aktibatzeke eskatzen diogu udal gobernu taldeari. Jarduera horiek urteak daramatzate gauzatzeko prest, eta funtsezkoak dira ibaira zuzenean egiten diren isurketen amaiera emateko", azaldu zuen EAJren bozeramaileak. Alderdi jeltzaleko kideak azaldu zuenez, aurreko legegintzaldian, eurak alkatetzan zeudenean, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoagaz batera beharrezko lan tekniko guztiak prest utzi zituzten. "EH Bilduren eta AIBren egungo gobernuak ez du ezer aurreratu hiru urteko agintaldian. Guk idatzita eta adostuta utzi genituen proiektuak Ur Partzuer-



Mikel Garaizabal, Laubideta kalean.

goagaz. Orain, borondate politikoa baino ez da falta horiek gauzatzeko. Saneamendua ezin da blokeatu interes politikorik ez dagoelako. Dena prest dago ekiteko, erabakia besterik ez da falta", amaitu zuen Mikel Garaizabal jeltzaleak.

Herriarren ongizate integrala bultzatzeko laguntzak Abadiñon

M.Z. ABADIÑO

Herriarren ongizate integrala indartzen jarraitzeko asmoz, Abadiñoko Udalak zaintzarako hainbat udal ekimen ipini du martxan. Hori horrela, eta osasuna ikuspegi zabal batetik ulertzeko, erraztasuna eskaini gura dute osasun mentala, jarduera fisikoa, sozializazioa eta kulturarako sarbidea izateko. Bide horretan, udalak psikobonuen eta gizarte bonuen eskaria egiteko deialdia zabaldu du.

Udalak azaldu duenez, psikobonuen programaren bitartez terapiako sarbidea erraztu gura diete herriarrei, oztopo ekonomikorik bako laguntza eskainiz eta gehien behar duten kolektiboak lehenetsiz.

Bestalde, gizarte bonuek urteko laguntza izateko aukera ematen diete egoera zaurgarrian dauden herriarrei; besteak beste, igerilekuko eta kultur ekitaldietako zerbitzuak erabili ahal izateko.

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Abadiñoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak Muntsaratzeko alokairu publikoko etxebizitzak eraikitzeke hitzarmenaren gaineko zehaztasunak adostu zituzten joan zen astean. Udalak jakinarazi duenez, Muntsaratzeko SR-3 eta SR-4 partzeletan etxebizitza publikoak eraikitzea ahalbidetu du hitzarmenak. "Abadiñoko Udalak konpromisoa hartzen du SR-3 lurzatiaren jabetari osoa Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailari uzteko, doan eta inolako kargarik barik, eta, trukean, Abadiñon erroldatutako herriarrek lehentasuna izango dute", azaldu du gobernu taldeak.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak konpromiso hauek hartu dituela azaldu dute: bizitegi-blokeen oinarritzko proiektua eta exekuzio proiektua kontratatzea eta idaztea, eraikuntzari lotutako urbanizazioa barne; zuzendaritza fakultatiboa eta bizitegi-blokeak eraikitzeke obra kontratatzea; eta bizitegi-blokeak eraikitzeke obra eta eraikuntzari lotutako urbanizazioa gauzatzea.

Etxebizitzaren esleipenari dagokionez, esleitzeko araudian adierazitako esleipen-prozedura eta kupo-erreserbak errespetatuko direla azaldu dute. Lehentasuna Abadiñoko herriarrek izango dutela esan dute, baldin eta azken 10 urteetan gutxienez 3 urtez jarraian Abadiñon erroldatuta egon badira, edo bost urtez jarraian erroldatuta egon badira. Horrez gainera, beharrezkoa izango da Etxebiden izena emanda egotea; izan ere, izen emateak antzinatasunaren arabera puntuatuko dituzte.

"Akordio hau aurrerapauso handia da udalerrian alokairuko etxebizitza babestuen eskaintza zabaltzeko eta herriarren kezka nagusienetariko bati irtenbidea emateko", gaineratu du gobernu taldeak.

ETXEBIZITZA HAUETAN LEHENTASUNA ABADIÑARREK IZANGO DUTELA JAKINARAZI DUTE

Ander Martinen omenez, Borrokalari Eguna Mallabian

Mallabitarra uztailan hil zen. Bere senitarteko eta lagunek egun osoko jaialdia antolatu dute martxoaren 14rako

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Mallabian Borrokalari Eguna antolatzen dabilta martxorako, uztailan hildako Ander Martin Estenaga herriar omentzeko. Martin oso pertsona maitatua zen herriarren artean, herriaren eta pilotaren alde lan handia egin zuen, eta familiarteko eta lagunek aitortza egin gura diote orain.

Martxoaren 14rako egun osoko egitaraua antolatu dute. Herriko dantzarien saioagaz emango diote hasiera Borrokalari Egunari, eta, ondoren, herri kirolak, bertsolariak, pilota partiduak eta triki poteoa egongo dira, besteak beste. 15:00etan herri bazkaria egongo da, eta Burrumba elektrotxaragaz eta Apokhalipsis, Desein eta Storbais taldeen kontzertuekin emango diote amaiera egunari.

Ander Martinen senitartekoek jakinarazi dutenez, herri bazkariko txartelak salgai daude dagoeneko. Tiketak pilotalekuan, Idoiaren dendan, Herriko Tabernan zein Jubilatuen Etxean erosi daitezke. 666 38 51 70 telefono zenbakira idatzita ere egongo da erosteko aukera.

Menuari dagokionez, bi egongo dira. Bata umeentzat, makarroiak eta haragi-bolak, 15 euroan. Bestea nagusientzat, marmitakoa eta haragi-bolak, 25 euroan.

Errifak salgai

Martinen omenezko eguna aurrera ateratzeko, errifak salgai ipiniko dituzte. Antolakuntza lanetan dabilzanek jakinarazi dute "sari potoloak" zotz egingo dituztela. Errifan zozketa jaialdiko egunean bertan egingo dute, 17:00etan.

anboto

INAUTERIE TAKO

ARGAZKI LEHIAKETA

SARIA
EUSKAL
PRODUKTUEKIN
OSATUTAKO
OTZARA BAT

BIDALI ZURE
ARGAZKIA
688 635 041
ZENBAKIRA
EDO WEBGUNERA

Argazkiak bidaltzeko
azken eguna
OTSAILAK 19



Okm: batzen gaituen distantzia

anbotokide



**OTSAILEKO
ZOKKETAK**



Arriolan, (Elorrio) La Senior de Larraia
"You have an inner world, so what?"
Dantza emanaldirako 2 sarrera. Otsailak 27.



Zelai Hotela (Zumaia): Talaso saioa
eta gosaria barne duen birentzako bonua.



Xiberu tabernan (Zornotza)
bi gosari bikoitz.

EGIN ZAITEZ **ANBOTOKIDE**
ETA PARTE HARTU
GURE ZOKKETETAN!



Beste pauso bat Izurtzako plazako lanen esleipenean

Gaur eguerdian udalbatzarra egitea aurreikusita dago lanak behin-behinean emateko. Udalak abiatutako lehiaketara enpresa bi aurkeztu ziren, eta, bakoitzaren proposamenak aztertu eta gero, Rekalde enpresak lortu du punturik gehien



Izurtzako plazako lanak bigarrenaz atera dituzte lehiaketara.

J.D. IZURTZA

Izurtzako plazako lanen esleipena pauso bat gertuago dago. Udalak abiatutako lehiaketara enpresa bi aurkeztu ziren. Udalak proposamen biak aztertu ditu eta Rekalde enpresa izan da punturik gehien lortu duena. Orain, esleipena behin-behinean enpresa honi ematea bozkatuko dute. Udalbatzarra gaur egitea dago aurreikusita, otsailak 13, 13:00etan. Udalbatzarrean onartzen bada, beste epealdi bat hasiko da dokumentazioa entregatzeko eta antzeko gestioak egiteko. Azkenengo pausoa udalbatzarrean lanak behin betiko onartzea litzateke.



Maite Franko ipuin kontalaria.

Otsoen gaineko ipuin dibertigarriak, hilaren 23an, Mañarian

J.D. MAÑARIA

Maite Frankok *Zorte txarreko otsoak* izeneko ipuin kontaketa saioa egingo du, Mañarian, otsailaren 23ko astelehenean, 18:00etan. Ekimena 4tik 10 urtera arteko umeei zuzenduta dago. "Otsaila otsoen hilea delako, haien gaineko ipuin dibertigarriak kontatuko ditugu", azaldu du. Frankok 22 urte daramatza ipuin kontalaria legez.

Atxondon 30 bat kilo elikagai batu dituzte Karabana Solidariorako

Herrian baturikoa Saharako kanpamentuetan dauden errefuxiatuei laguntzeko karabanara gehitu dute



Janari biketarako gune bat udaletxeko sarreran egon da hainbat egunez.

J.D. ATXONDO

Atxondoko Udalak bat egin du Sahararen Euskal Karabanagaz, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpalekuetan bizi diren sahararrei laguntza helarazteko helburua duen elkartasun ekimenagaz. Herrian bilgune

bi egon dira hainbat egunez: eskolan eta udaletxeko sarreran. Guztira, 30 bat kilo elikagai batu dituzte. Baturiko guztia kaxetan sartu eta dagoeneko karabana solidarioko parte dira, udal arduradunek jakinarazi dutenez.

Zaldibarko Acha-Orbeak hiru langile kaleratzea salatu dute

Enpresa batzordeak mobilizazioetara deitu du kaleratzeen kontra, eta langileen estatutua betetzea eskatzeko

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko Acha-Orbea enpresan hiru behargin kaleratu dituzte la jakinarazi du ELAk. Sindikatuaren esanetan, kaleratzeok "urtarrilaren 30ean" izan ziren, eta enpresak "arrazoi ekonomikoak" argudiatu dituela jakinarazi du: "Enpresak dio salmentak gutxitu egin direla AEBetako muga-zergeren eraginez. Baina guk ez dugu uste horrela denik. Izan ere, iaz, beharginak ordu poltsa negatibo batez geratu ziren, eta aurten ordu horiek berreskuratzen hasi dira. Ehun

ordu, guztira", azaldu du Javier Garciak, Gernikako eta Durangoko ELAko industria ardura-dunak: "Horrenbestez, ezin da ulertu lan jaitsiera bat egotea", gaineratu du.

Sindikatuaren iritziz, enpresak "txarto" kudeatu du auzia. "Ez diote batzordeari kaleratzeen berri eman, eta, horrez gainera, hamabost eguneko denbora tartea errespetatu barik kaleratu dituzte beharginak. Gurago izan dute langileei hamabost egun horietako soldata ordaindu. Horrenbestez, agerian dago ka-



Zaldibarko Acha-Orbea enpresa.

leratzeen arrazoia ez dela ekonomikoa", adierazi du Garciak.

Acha-Orbeako enpresa komitea ELAk (hiru ordezkari) eta LABek osatzen dute (ordezkari bat). Sindikatu biek elkarretaratzeetara deitu dute kalera-

tzeen kontra, eta langileen estatutua bete dadin eskatzeko. "Izan ere, ez dakigu kaleratze gehiagorik egongo ote den", esan dute. Hurrengo mobilizazioa otsailaren 18rako deitu dute, 13:30-14:30 artean.

Jone Erzillaren lanak ikusgai egongo dira Zaldibarren

E.H. ZALDIBAR

Jone Erzilla artista durangarrak beste erakusketa bat inauguratuko du, gaur, Zaldibarko Xerra espazioan: *Yung Urkiolamendi*. Erakusketaren inaugurazio ekitaldia 17:30ean hasiko dute, jakinarazi dutenez.

Besteak beste, Rara Sego (Gijón) eta Cohete Fernandez (Valentzia) tatutzaileak bertaratuko dira inaugurazioa ekitaldira. Neskachas irundarrek performancea egingo dute bertan, eta Landa eta Xuxe and Grandma musika jartzaileek musikaz girotuko dute erakusketa. Antolatzaileek azaldu dutenez, erakusketa maiztaren 31ra arte egongo da ikusgai Xerra espazioan.

3.000 arbolatik gora sartu dituzte Garain, Trumoita aldean

Ametzak, arteak eta urkiak landatu dituzte 45.000 metro karratuko arloan; itsas pinuak eta zedroak 52.000koan

Ekaitz Herrera GARAI

Garaiko Udalak herri basoak oihanberritu ditu Foru Aldundiagaz eta Iberdrolagaz elkarlanean. 3.000 arbola baino gehiago sartu ditu Trumoita aldean. Ametzak, arteak eta urkiak landatu ditu 45.000 metro karratuko arloan, eta itsas pinuak eta zedroak 52.000 metroko azaleran.

Udal iturriek azaldu dutenez, lursail bakoitzaren orientazioa kontuan hartuta erabaki dute zein espezie landatu. Jarduketa horri eskerrak, udalak "basoa dibertsifikatu" gura du, "bertako



Urkiolako baso bat. ARTXIBOA

espezieei geroago eta toki zabalagoa" eskaini. Gainera, "bestelako jardueretatik diru sarrera urriak" jasotzen dituela eta, "baso ustiapena" erabili gura du etorkizunean, diru sarrerak lortzeko. Arbolak sartzeaz gainera, itxiturak ere ipini dituzte haiek babes-teko. Esku hartze osoak 82.200 euroko inbertsioa izan du.

Halaber, udalak arrakalak eta zuloak konpondu ditu Oiz mendirako bidearen hasieran, 16.000 euroko aurrekontuagaz.

Baita akordioa ere

Udalak hainbat akordio egin du lursail txikietako jabe pribatuekin. Hartara, arlo horiei irtenbidea emateaz gainera, herri basoen hedadura eta jarraitutasuna bultzatu gura ditu. Aurten, urratsak ematen dabil 90.000 metro koadro herri baso bihurtzeko.

Osasunari buruzko berbaldi zikloa antolatu dute Otxandion

Ikuspuntu feminista eta gertukoa oinarri hartuta, berbaldi bana emango dute otsailaren 18an eta 25ean

A.B. OTXANDIO

Otxandioko Bagaizan talde feministak eta udalak osasunari buruzko berbaldi zikloa antolatu dute elkarlanean otsailerako. Ikuspegi feminista eta gertukoa oinarri hartuta, hiru hizlari gonbidatu dituzte. Paloma Morazak abiatu zuen zikloa, eguaztenean, menopausia hizpide hartuta. Osakidetzan 40 urtetik gora lan egin du erizain legez, eta gaur egun etapa hori bizi duten emakumei laguntzen die.

Hurrengo berbaldia otsailaren 18an izango da. *Isiltasuna haus-*

tea: emakumeengan normalizatu diren minen tratamendua izango du berbagai Oskar Arenaza fisioterapia laguntzaileak. Arenazak osteopatia, psikoimmunologia klinikoa, reflexiokinesia eta neurologia funtzionala lantzen ditu, eta medikuntza ikasketak egiten dabil. Iñigo Uriartek (iktusaren eta bizi ohitura osasuntzuen inguruko dibulgatzailea) borobilduko du zikloa *Iktus ondorengo bizitza (a)normala* berbaldiagaz. Saio guztiak 18:00etan izango dira, kultur etxean.

INAUTERIAK

2026

AMOREBIETA-ETXANO

**amorebieta
etxano**
UDALA KULTURAREN

560 euro, Santa Agedan batuta

Orue parrokiako lagun talde bat santa eskean irten zen Santa Ageda bezperan. Guztira, 560 euro batu zituzten, eta baturiko diru horregaz elikagaiak erosi zituzte: arroza, olio, le-kaleak...

Orue parrokiako kideek eskerrak eman dizkiete San Migel, San Antonio, Euba eta Bernako auzotarrei, besteak beste.



ORUE PARROKIAKO KIDEAK

DURANGALDEA ASTEON



HIRUKOA

Hikena taldeak irabazi du aurtengo Hirukoa

DURANGO Berbarok Hirukoa lehiaketaren zazpigarren edizioa egin zuen joan zen barikuan Plateruenean. 18 hirukotek parte hartu zuten, Mirari Zugazartazaren eta Gorka Madrazo aurkezleen esanetara. Lehiakideek askotariko galderei erantzun eta hainbat proba gainditu behar izan zuten. Hikena taldeak irabazi zuen lehiaketa, bigarrenen. Kafezaleak taldea izan zen bigarrena, eta Oinguen Bai hirugarrena.

Zornotzan eraso bi gertatu dira azken astean

ZORNOTZA Suhaziak sare sozialetan jakinarazi duenez, azken astean eraso bi gertatu dira Zornotzan. Lehenengo eraso Zorber Fest jaialdian gertatu zen. Bigarrena astelehen arratsaldean. "Zornotzako gazte feministok argi utzi gura dugu ez dugula inolako erasorik onartuko gure herrian, eta ez ditugula jazarpena eta indarkeria normalizatuko", gaineratu dute.

GUTUNA

Iritzia

PAULA DE LA PORTILLA
ZALDIBAR

Zaldibarko anbulatorioan dosi hirukoitz birikoa iraungita jaso duten hiru (guk dakigula) adingabeetako baten gurasoak gara. Gure 17 hilabeteko semeak 2025/08/25ean jaso zuen Priorix txertoa, A69FF652A lotea, 2025eko maiatzetik iraungita. 2026/01/30ean, Osakidetza telefonoz deitu, barkamena eskatu, eta zentrorra joateko esan zigun, kartillarekin, akatsa baieztatu ahal izateko. Han egiaztatu ziguten iraungitzea, eta kontatu ziguten amatxo batek detektatu zuela, 2026/01/28an kartilla ikusi ondoren bere alabari txerto iraungi bat inokulatu ziotela. Berehala txertatu zuten gure semea, baina horrek

harritu egin gintuen, txerto berri hori biharamunean iraungitzen zelako. Denbora horretan bi lote aldi berean erabili zirela azaldu ziguten: bata denboraren barruan, eta bestea iraungia; beraz, haur batzuek ez zuten eraginik izan, dena zoriaren mende egon zen. Azpimarratu ziguten txertoa berriro jartzea segurua eta arriskurik gabea dela.

Baina zer gertatuko zatekeen hilabete hauetan gure seme-alabak elgorriaz, errubeolaz edo hazizurriaz kutsatu izan balira? Haserre gaude Eusko Jaurlaritzaren eta Osakidetza gendentasun faltagatik. Zaldibar apenas aipatzen da hedabide edo ohar ofizialetan. Egia osoa, ikerketa sakona, erantzukizunak argitzea eta Osakidetza egitea eskatzen dugu, berriro gerta ez dadin.

Zure gutuna helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - lurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN

HERRIAREN
ESKUBIDEA -
INDEPENDENTEAK

3 urteko promes hautsiak kirolean

Azken 3 urteetan EAJk eta PSOEk Durangoko kirol zerbitzuei buruz egindako kudeaketaren balantzea tamalgarria da. Kudeaketa izan behar zuena erakundeen utzikeria bihurtu da.

Beste uda batean ez da aldagelarik egongo Tabirako igerilekuetan, 2025ean martxan egon zitezkeenean. Eta ikusiko dugu udako igerilekuak noiz ireki daitezkeen aurtun.

Fitness aretoko (itoginekin barruan kanpoan baino euri gehiago egiten duela ematen du) makinak ez dirudi inoiz helduko direnik. Bitartean, mantentze-lanak egiteari utzi zaio. Eta zerbitzu-kontratua, utzikeriagatik iraungita.

Baina larriena urtarrilean iritsi zen: milaka erabiltzaile urteko abonua berritu ezinik. Igerilekuetako atean bertan buelta eman eta etxera itzuli behar duten familiak. Hiruhileko abonua garestiagoak ordaintzera behartuta dauden milaka erabiltzaile. EAJk eta PSOEk oinarritzakoa kudeatzeko duten ezintasuna agerian uzten duen lardaskeria. Orain prezioak igo nahi dituzte eta jarduera antzeko abonua kentzen dute, beren utzikeria pairatzen dutenak bi aldiz zigortuz.

Udal kirolak ez du aitzakiarik behar, instalazioak mantenduko dituzten eta erabiltzaileak errespetatuko dituzten kudeatzaileak behar ditu. Durangok gobernu mozorrotutako abandonu honek baino zerbaite hobea merezi du.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Marketina: Deñe Izaga Yeregui.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.




LAGUNTZAILEAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



LABIRINTOA



MASKARAK

Moztu eta erabili maskara inauterietan



MASKARAK

Moztu eta erabili maskara inauterietan



Aritz Maldonado ABADIÑO

Garoa Bugallo antzezle abadiñarra gaztea da, baina oholtza gainean ordu mordoa egindakoa antzeztan. Gogotsu dago *Nor naizen baneki* bere azken lana Durangaldean aurkezteko. Harikaitz Cano idazleak eta Ximun Fuchs zuzendariak idatzi zuten obra, Irulegiko eskua agertu ondorengo sukar betean. "Indusketarako proposamen bat da antzezlanaren historia aldetik, baina baita maila pertsonalean ere".

Zelan heldu zitzaizun 'Nor naizen baneki'-ra batzeko proposamena?

Dantzertiko 4. mailan Ximun ezagutu nuen; bertako muntaketa zuzendu zuen. Urtero ekartzen dute zuzendari profesional bat hori zuzentzeko, eta gure urtean Ximun egokitu zen. Normalean horrelako hartu-emanekin heltzen dira horrelako proposamenak, eta zorteko sentitzen naiz. Proiektuan lanean zebiltzala, Irulegiko eskua agertu zen eta berak beti azpimarratzen du horrek sortu zuen euskal sukarra; Bat-batean leku guztietan zegoela nabarmentzen du, mozkorraldi moduko bat gertatu zela eskua agertzearen harira, eta lan handia egin eta gero jaio zen *Nor naizen baneki*.

Indusketa bat da abiapuntua baina harago doa, hausnarketa ugari planteatzen du.

Bai, indusketarako proposamen bat da. Bai fisikoa, lurra induskatzea bera, eta historian arakatzea. Indusketa pertsonal bat ere proposatzen du, norberaren mailan, eta Euskal Herri arloan ere bai. Azken batean, 'Nor naiz?', 'Nortzuk gara?' 'Nortzuk garen bageneki, zer?', 'Nondik gatoz?'... Nik, Garoa legez, badakit, baina herri legez badakigu nondik gatozen? Indusketa batetik abiatuta, hainbat galdera planteatzen da, erantzunik ez.

Urrian estreinatu zenuten. Zelako harrera izaten ari zarete?

Zelanbait esateko, dimentsio handiko nire lehenengo lana da. Euskal Herrian oihartzun handia izaten ari den proiektua da, eta zuzendariekin, idazleekin, lankideekin lanean nabil, azeri zaharrekin, zeozelan esatearren, eta zorioneko sentitzen naiz horregaitik. Egundoko aukera da ikasteko. Bestalde, erantzukizun handia zela ere iruditu zitzaidan, pertsonalki. Konpainiek duten pisuagaitik, eta nire pertsonaiak gai latzak eta sokinak lantzen dituelako ere bai.

"Indusketa batetik abiatuta, galdera sorta egiten dugu"

GAROA BUGALLO ANTZEZLEA

ANTZERKIA Artedrama eta Axut! konpainien 'Nor naizen baneki' lana Durangaldean taularatuko dute; gaur Elorrioko Arriolan, eta 20an eta 21ean Zornotzan eta Berrizen



Garoa Bugallo. AINHOA RESANO

Nik antzeztan dudana pertsonaia-ribilbidea apur bat urruti geratzen zitzaidala sentitzen nuen. Baina, eginean-eginean, uste dut benetan sartu naizela Juneren azalean, eta geroago eta erosoago sentitzen naiz. Konturatu naiz, aldi berean, ondo dagoela. Izan ere, langile bat baino ez naiz, eta norbaitek gustuko ez badu, zuzendariari esan beharko dio; gustatu zein ez, ni hemen lanean nago.

Bertigoa sentitu duzu Artedramagaz eta Axut!-egaz lanean?

Bai. Lantaldeko gazteena naiz, eta esperientzia gutxien duena ere bai. Baina lan handia egin dugu, eta taldeak ere asko lagundu dit; denbora guztian oso babestuta sentitu naiz. Publikoari dagokionez, jendeari entzun diot ikututa irten dela; batzuei gehiago gustatu zaie, edo ados daude, beste batzuk ez, baina, orokorrean, jendea benetan hunkitu dela uste dugu. Gai asko jorratzen dugu, eta gerora, Juneren pertsonaia adibidez, konturatzen gara denok ditugula batzen gaituzten gauzak, eta zauri batzuk ez direla indibidualak. Zauri ba-

"EGUNDOKO AUKERA IZATEN ARI DA IKASTEKO, BAINA ERANTZUKIZUN HANDIA ERE BADA"

tzuk denok partekatzen ditugu, eta horregaz ere identifikatuta sentitu gaitezke.

Durangaldean hiru emanaldi dituzu datozen aste bietan. Gogotsu zaude?

Bai, oso. Emanaldi asko izan dugu, Gipuzkoa aldean batez ere. Orain Durangaldera hurbiltzen ari gara eta emozionatuta nago, bertakoek ere ikusteko aukera izango dutelako. Gogotsu nago jendeari proiektu hau helarazteko, eta nire ezagunekin konpartitzeko ere bai. Gainera, aktoreok zenbait euskalkitan egiten dugu obra; nik bizkaieraz, eta, beraz, badakit publikoak eskertuko duena. Axut!-en eta Artedramaren lanek ertz asko dute eta hori beste bat da. Proiektu handiak egiten dituzte eta beldur moduko bat sentitzen nuen, ea handi geratuko ote zitzaidan; jauziak daude denboran, atzera eta aurrera, eta kodeak aldatu egiten dira, jakina.

Mar Mar antzerki konpainiagaz ere aritu zara.

Bai. Aurreko denboraldi osoan egon nintzen Mar Marregaz. Lehenengo, *Arrainak bihotzean* egin nuen, eta gero *Elara, bidaiari bat izarretara*. *Arrainak bihotzean* lanaren kasuan, gaztelaniaz egin nuen batez ere, eta Espainiatik ibili ginen. Euskal Herrian, batez ere, *Elara* lanagaz. Beste merkaturu batean mugitzen den konpainia da, antzerki familiarragaz, euskaraz eta gaztelaniaz. Horrek bere abantailak ere baditu, publiko zabalagoa du, eta, zorionez, gaur egun gurasoak gehiagotan joaten dira antzokietara. Konpainiari eskerrak, Espainiako merkatua zelakoa den ere ikusi ahal izan dut. Adibidez, arratsalde euritsu batean antzokiak beterik ikusi ditut, 18:00etan. Eta horrek ematen dizun aberastasuna itzela da. Azken finean, zenbat eta eremu gehiago zapaldu, gehiago jakingo duzu. Orain, oster, beste kode batzuekin lan egiten dut, helduentzako antzezlanagaz, antzerki naturalistagoa edo, eta kantua eta dantza ere jorratuta. Oso eskertua nago.

Kilometro mordoa egin duzu Mar Marregaz.

Bai, kilometroak eta kilometroak. Komunitate txiki bat osatzen dute, eta biretan bizikidetzaz zer den ere ikasi dut. *Nor naizen baneki* lanari denboraldi oso bat geratzen zaio oraindino, baina, aurrera begira, zeozer propioa sortzea ere gura nuke.

'El regalo' Malagako jaialdian lehiatuko da

ZINEMA Lara Izagirre zinemagile zornotzarrak AMUGEGaz (Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarte) elkarlanean egin du 'El regalo' ikus-entzunezkoa; film laburrak ikusleen saria jaso zuen Zinebin, eta oihartzun zabala izan du nazioartean

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Lara Izagirre zinemagile zornotzarraren *El regalo* film laburra Malagako (Espainia) zinema jaialdi entzutetsuan lehiatuko da, festibaleko sail ofizialean, film laburren atalean. Zinemagile zornotzarrak AMUGEGaz batera egin du ikus-entzunezkoa, Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarteagaz batera. Pelikula 16 milimetrotan filmatuta dago eta Bilboko Kale Nagusia eta Otxarkoaga ditu kokaleku nagusi. Istorioan, Izagirrrek benetako egoera bat kontatu du, opari bat erostera iristen diren Aurora Cortés, Samara Jiménez eta Desirée Clavería emakumeen istorioa.

El Regalok ikusleen saria jaso zuen Zinebin, eta oihartzun zabala izan du nazioartean. Sari nagusiak eskuratu ditu Argentinako Short Fest jaialdian eta Alemaniako Ake-Dikhea Erromaniar Zinema Jaialdian. Halaber, martxo hasieran Burgos-



Lara Izagirre. GARIZA FILMS

ko Petronila jaialdian eta Palentziako Nazioarteko Zinema Erakustaldian (Espainia) proiektatuko dute, baita Poloniako Zoom jaialdian ere.

Zornotzarraren film laburra Gariza Films ekoiztetxeak bul-

tzatu du eta sona handiko euskal herritarrak ditu atzean. Aktore nagusiekin batera ageri dira, besteak beste, Ane Pikaza, Aitor Borobia, Tessa Andonegi, Garoa Bugallo, Erik Probanza eta Sheila Aguilar.



Nahia Olivares eta Lide Román.

Nahia Olivares eta Lide Román ElOrako aukeratu dituzte

MUSIKA Apirilaren 5etik 10era, Euskadiko Ikasleen Orkestrak egingo duen topaketan parte hartuko dute

A. M. DURANGO

Durango Kontserbatorioaren Nahia Olivares eta Lide Román ikasleak Euskadiko Ikasleen Orkestrak apirilean egingo duen topaketan parte hartzeko aukeratu dituzte. Jaur-laritzaren Hezkuntza Sailak sustatutako ekimena da EIO, eta urtero gazte musikariak batzen ditu elkarregaz lan egiteko. Aurtan, apirilaren 5etik 10era bitartean batuko dira, eta egun horietan parte hartzaileek errepertorio tekniko eta anitza landuko dute; besteak beste, Aaron Copland, Jose Maria Usandizaga eta An-

tonin Dvoraken lanak interpretatuko dituzte. Topaketaren ondoren, kontzertu bana emango dute Bilboko Juan Crisostomo Arriaga kontserbatorioan, Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioan eta Donostiako Musikenen.

Durango Udalak eta Bartolome Ertzillak musikari gazte biak zoriondu ditu ohar baten bitartez. "Musikari eskainitako etenbako ahaleginaren eta konpromisoaren emaitzagaitik zoriondu gura ditugu; EIOko esperientziari eskerrak, ikasten jarraitzeko aukera izango dute", azaldu dute.



GAI LIBREAN

AINHOA ZABARTE NARBAIZA BEHARGINA

Hilerria

Hilerri bat du Teresak. Txikia da oso, zehazki, ehun metro karratu. Coret izeneko basoan dago hobi zibila, Lleidako Bausen herri txikian, Vall d' Aranen, hain zuzen. Oso-osorik da berea, harentzako eraiki baitzuten berariaz.

Doceta etxeko nerabea zen Teresa, eta Belana etxeko Siscorekin -Francisco- maitemindu zen. Garai hartan gertatu ohi zen eran, familia ziren, lehengusuak. Hori ez zen oztopo izan beraien maitasun istorioarekin jarraitzeko, harik eta egun batean ezkontzeko erabakia hartu zuten arte.

Elizatik ezkondu nahi zuen bikoteak, baina senidetetasuna tarteko, apaiz katolikoak diru kopuru jakin bat eskatzen zien zeremonia aurrera eramateko: odoleko dispentsa, 25 pezeta. Batzuek diote dirurik ez zutela; beste batzuek, aldiz, ez zutela ordaintzerik nahi. Bata ala bestea, ez ziren ezkondu, baina beraien harremanak aurrera jarraitu zuen eta bi seme-alaba izan zituzten.

Pneumonia batek jota, gazte hil zen Teresa, 33 urte zituela. Apaiz berak uko egin zion haren gorpua hilotzeari. Izan ere, ezkondu gabe bi seme-alaba izan zituen, bekatuan bizi zen Teresa, eta lur bedeinkatuan lurperatzea profanazioa zen apaizaren esanetan.

"TERESARENA BAINO HANDIAGO DA HAU, 140.000 METRO KOADRO, ETA ATZEAN DUEN ISTORIA EZ DA EDERRA"

Bauseneko bizilagunek, berriz, lurperatu eta agur duin bat emateko nahiaz hilerri zibil bat eraiki zioten 24 ordutan. Egun, 110 urte ditu. Harritzko hormek inguratzen dute hobia, harlauza batez eta erlijio-ikurrik gabe zera du inskribatuta: "Ene Teresa maiteari 1916ko maiatzaren 10ean hil zena, 33 urte zituela. Ama maitea."

2020. urtean kultura-intereseko izendatu zuten hilerria, eta urte beretik daukagu guk hilerri berri bat herrian. Teresarena baino dexente handiagoa da hau, 140.000 metro karratu, eta atzean duen istorioa ez da ederra. Sei urte igaro diren honetan, bertan jarraitzen du Joaquín Beltranen gorpuak harrapatuta. Interesek astindutako albisteen nahaspilan ibili da auzia azken asteotan. Ea ba, berandu baino lehen, benetan argitzen diren egiazko erantzule eta erantzukizunak. Ez dadila ahanzturan erori.

INAUTERIE TAKO EGITARAU A

ABADIÑO

OTSAILAK 13

- 15:15 Tailerrak. Probalekuan.
- 16:30 Txokolate jana. Probalekuan.
- 17:00 Diskofesta. Probalekuan.

16:45 Txokolatea eta disko festa. Trañako plazan eta frontoian.

18:15 Tailerrak. Trañako plazan eta frontoian.

OTSAILAK 14

12:00 Kalejira. Mitiñoz jantzita joatera eta harri bina eroatera gonbidatu dituzte herritarrak. Zelaletan.

12:00 Joselontxos fanfarrea. Traña-Matienan.

14:30 Mozorro bazkari autogestionatua. Ondoren, bingo musikala. Probalekuan.

17:30 Bingo musikatua. Kartoi bat pertsonako. Sariak egongo dira. Traña-Matienako Trañabarren etorbidean.

18:00 Erromeria: Errota taldea. Txanporta plazan (euria eginez gero, probalekuan).

OTSAILAK 17

18:00 Mozorro desfilea. Amaieran, Kokomarro erreko dute. Txanporta plazan.

ATXONDO

OTSAILAK 17

17:30 Diskofesta eta mozorro desfilea. Desfilean parte hartzen dutenentzat saria egongo da. Frontoian.

BERRIZ

OTSAILAK 13

- 10:30 Haurreskolaren kalejira. Herrian zehar.
- 11:00 Mozorro kalejira. (Euria egiten badu, bertan behera geratuko da). Berrizko kaleetan zehar.

12:00-13:30 / 16:30-19:30 Trena, Olakuetatik Elizondoraino eta alderantziz. (Geraleku bietan jaitsi behar da). Olakuetan.

18:30 Musika eta Jaia Euskal Diskofestagaz. Ondoren, txokolate jana. Frontoian.

OTSAILAK 14

13:00 Hiltegixe apaindu. Gaztetxearen 27. urteurrena ospatzeko egitaraua osatu dute, eta mozorrotuta parte hartzera deitu dute. Gaia: Baserria. Hiltegixen.

12:00 Kuadrillen topaketa. Olakueta plazan.

13:00 Mozorro lehiaketa. Probalekuan.

14:00 Bazkari herrikoia. Mozorrotuta joan behar da, eta 12 urtetik beherakoak helduek lagunduta joan beharko dira. Frontoian.

14:30 Bazkaria. Ondoren, Mihiluze. Hiltegixen.

17:30 DJ familiarra. Probalekuan.

18:00 Karropoteoa. Hiltegixen hasita.

19:00 Dj Roka. Probalekuan.

22:00 Lukiek taldea. Ondoren, DJ gaua: Xirimiri MJ +

Alloxelets + Dj A.M. Hiltegixen.

DURANGO

OTSAILAK 13

19:00 Victor Amilibia umorista Otamotzena auzogunean.

OTSAILAK 14

12:00 Jolas gunea. Arropa kustomizatzeko tailerra. Tabira auzoan.

16:00-20:00 Jolas libreko gunea. Landako Gunean (3. moduluan).

16:00-20:00 Jolas parkea. Landako Gunean.

18:30 Surrandien eta Hartzaren konpartsaren kalejira, txistulariekin eta bandagaz. Ibilbidea: Merkatu Plaza, Astarloa, Correos, Ibaizabal (dantzak), Egurrezko Zubia, Plateruen Plaza, Ermodo, Zumalakarregi kalea, Ezkurdi Plaza (dantzak), Herriko Gudarien kalea, Josemiel Barandiaran, San Agustinalde, Barrenkalea, Andragunea, Santa Ana, Artekale, Andra Mari (dantzak). Antolatzaileak: Kriskitin Dantza Taldea, Jaizale, Tabira Musika Banda eta Musika Eskolako Banda. Eguraldi txarragaz, Merkatu Plazan eta Andra Mariko Elizpean.

20:15 Iratzar erromeria taldea. Andra Mariko Elizpean.

OTSAILAK 15

12:00-14:00 Jolas gunea. Material birziklatuagaz musika tresnak sortzeko tailerra. Ibaizabal parkean.

16:00-20:00 Jolas libreko gunea. Landako Gunean.

16:00-20:00 Haur parkea. Landako Gunean.



DURANGALDEA Inauteriak
Durangaldeko herrietako kale eta bazterrak mozorro eta kolorez jantziko dira asteburuan zehar. Hainbat herritan mozorro desfileak eta herri bazkariak antolatu dituzte inauteriak ospatzeko. Otsailaren 14an eta 17an.

OTSAILAK 16

16:00-20:00 Haur parkea. Landako Gunean.

16:00-20:00 Jolas libreko gunea. Landako Gunean.

OTSAILAK 17

12:30 Jolas Gunea: Marsel Magoa. Madalena auzoan (euria bada, Maristak ikastetxean).

16:00-20:00 Jolas libreko gunea. Landako Gunean.

16:00-20:00 Haur parkea. Landako Gunean.

17:00 Diskofesta, Robot pertsonaiaren animazioagaz. Andra Mariko Elizpean.

19:00 Carro Party Primo Bayo. Andra Mariko Elizpean.

ELORRIO

OTSAILAK 13

20:00 'Nor naizen baneki' (Artedrama&axut!) Arriola antzokian.

OTSAILAK 14

13:00 Poteoa. Gaztetxeak 38. urteurrena ospatzeko egitaraua osatu du eta mozorrotuta parte hartzera deitu dute. Gaztetxean.

13:30 Grafiti tailerra (Gaztetxea). Plazan.

15:00 Bazkaria. Ondoren, jokoak eta sari banaketa. Gaztetxean.

17:30 Famili argazkia. Ondoren, Oski Mj + Super Truper Mj. (Eguraldi eskasagaz frontoian). Gaztetxean.

18:00-22:00 DJ Urko. Umeentzat 18:00etatik 19:30era. Guztientzat, 19:30etik 22:00etara. Plazan.

20:00 Haur eta helduen mozorro lehiaketan sari banaketa. (EMEko tabernak) Plazan.

22:00 Eztanda + Mugarri + Mamadisimos Mj + Tedhno B2B Arango. Gaztetxean.

08:00 Gaupaseroan argazkia. Gaztetxean.

OTSAILAK 17

10:45 Ikastetxeetako umeen ikuskizunak. Plazan.

10:30-13:00 DJ Jon. Nizeto Urkizu aparkalekuan.

18:00-21:00 Luhartz taldea. Txokolatea banatuko dute, 18:15ean. Plazan.

IURRETA

OTSAILAK 14

12:30 Poteo girotua. Herrigunean.



DURANGO Surrandiak

Surrandien eta Hartzaren konpartsak Durangoko kale eta bazterrak zeharkatuko ditu zapatuan. Kriskitin dantza taldea, Jaizaleko txistulariak, Tabira Musika Banda eta Musika Eskolako Banda izango dituzte lagun. *Otsailak 14, zapatua, Merkatu plazan, 18:30ean.*

15:00 Bazkaria.

Ondoren, karnabaletako argazkien proiektzioa. Bazkalostea musikaz girotuko dute. *Askondoko karpan*

18:00 Gautxori elektrotzaranga. *Herrigunean.*

OTSAILAK 17

17:00 Zapotxin pailazoa. *Askondoko karpan.*

MALLABIA

OTSAILAK 13

18:30 Petanka txapelketa. 12 urtetik gorakoentzat *Herriko frontoian.*

OTSAILAK 14

14:30 Mozorro bazkari autogestionatua. *Herriko frontoian.*

17:00-19:00 Kale animazioa: DJ TRACK-A. *Herrian.*

OTSAILAK 17

14:45-15:45 Ekain pailazoa. *Eskolan.*

16:30 Txokolate jana. *Herriko frontoian.*

17:00-20:30 DJ Oihan Vega. *Herriko frontoian.*

17:30 Playbacka eta Mozorro Lehiaketa. Lehiaketan izena emateko, herriko frontoian martitzenean

bertan 16:30etik 17:00etara. Bestela, liburutegian, otsailaren 16ra arte. *Herriko frontoian.*

MAÑARIA

OTSAILAK 14

17:00 Sasibereziren harrera. Herritarrek Sasiberezik ekarritako esne kantina babestuko dute, eta mozolo maltzurrari eta bere jarraitzaileei aurre egingo diete. Trikitilariak girotuta. *Plazan.*

18:00 Mozorrorik onenaren saria. *Plazan.*

18:30 Txokolatea eta tostadak *Plazan.*

OTXANDIO

OTSAILAK 14

12:30 Giltza trukea eta txupinazoa 6. mailakoen eskutik. Jarraian, Udal Bandagaz animazioa. *Plazan.*

13:00 IV. Mozorro desfilea. Giro euskalduna, alaitasuna eta parekidetasuna baloratuko dira. *Andikoatik plazara.*

15:00 Herri bazkaria. *Haurreskolaren ondoko aretoan.*

18:00 DJ Raizti. *Plazan (euria eginez gero, Kontseilupean).*

ZALDIBAR

OTSAILAK 14

15:00 Bazkaria. (Txartelak Sorgin tabernan eta Herrikoan). *Gaztetxean.*

17:30 Gaztetxetik jaitsiera. Ondoren, poteo girotua Sorgin tabernatik hasita, eta sari banaketa. *Gaztetxean.*

18:00 Euskal Jaia diskofesta. (Euria bada, eskoletan). *Udaletxeko plazan.*

02:00 Bingo musikatua. *Gaztetxean.*

OTSAILAK 17

17:00 Mozorro lehiaketa. Izena ematea, otsailaren 16ra bitartean liburutegian edo bertan egunean 16:30etik 17:00etara plazan. (Euria bada, eskoletan). *Udaletxeko plazan.*

17:30 Sari banaketa. (Euria bada, eskoletan). *Udaletxeko plazan.*

17:45 Egun on sikiera diskofesta. (Euria bada, eskoletan). *Udaletxeko plazan.*

ZORNOTZA

OTSAILAK 13

17:00-18:00 Eskulan tailerra: **Perubele.** *Ludotekan.*

17:15 / 19:15 'Zerua lapurtu dute' (Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore). *Zornotza Aretoan.*

18:00 Gaztedi Berri Fanfarrea. *Abasolo Apezpiku kalean.*

19:00 Perubeleren aurkezpena eta Udazken taldeko gaiteroekin kalejira. *Zelaieta parkeko kioskotik Zubiondora.*

19:30 DJ Xaibor. Sagardoa eta txorizoa eskainiko dituzte. *Zubiondo plazan.*

OTSAILAK 14

12:30 Inauteri dantzak (Udabarri dantza taldea eta Kittu). *Herritik zehar.*

17:00 Eskulan tailerra. *Gaztetxokoan.*

17:00 Inauterietako photocalla. *Zubiondo plazan.*

17:00 / 19:00 Go!azen. Musika ikuskizuna. *Zornotza Aretoan.*

18:00 'Harreman' (Zirkozaurre) umeentzako ikuskizuna. *Zelaieta parkean (euria bada, Zubiondo plazako karpan).*

19:00 Triki Piu Band. *San Juan kalea, Gernika plaza, Andra Mari plaza eta Zezilia Gallartzagoitia kalea.*

20:30 Erromeria: Zirkinik Bez. *Zubiondo plazan.*

OTSAILAK 16

11:30 Inauterietako tostadak. Inauterietako ogi txigortua osagai nagusi duten pintxo lehiaketa. *Nafarroa Zentroan.*

OTSAILAK 17

11:30 Euskal mitologia desfilea eta lehiaketa. Zentroko erabiltzaileak eta profesionalak protagonista izango dituen desfilea. *Nafarroa Zentroan (terrazza).*

17:00 Polaroid photocalla eta instagram mozorro lehiaketa. *Ludotekan.*

17:00 Eskulan tailerra. *Ludotekan.*

17:00 Eskulan tailerra. *Gaztetxokoan.*

18:00 'Dantzan' (Ene Kantak) umeentzako ikuskizuna. *Zubiondo plazan.*

ZINEMA

ABADIÑO

TXANPORTA KULTUR ETXEAN

Amama
Domeka 15: 18:00

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Frankie y los monstruos
Martitzena 17:17:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Cumbres borrascosas
Barikua 13: 17:45, 20:30.
Zapatua 14: 17:45, 20:30.
Domeka 15: 19:30.
Astelehena 16: 18:30.
Martitzena 17: 18:30.
Eguaztena 18: 19:00.

El vestido
Barikua 13: 18:30, 20:30.
Zapatua 14: 18:20, 20:00, 21:30.
Domeka 15: 19:30.
Astelehena 16: 18:00, 20:15.
Martitzena 17: 18:00, 20:15.
Eguaztena 18: 19:00.

Ruta de escape
Barikua 13: 17:45, 20:30.
Zapatua 14: 17:45, 20:30.
Domeka 15: 16:45, 19:30.
Astelehena 16: 18:30.
Martitzena 17: 18:30.
Eguaztena 18: 19:00.

Evolution
Zapatua 14: 16:30.
Domeka 15: 17:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

La chica zurda
Zapatua 14: 20:00.
Domeka 15: 20:00.
Astelehena 16: 20:00.

Zootropolis 2
Domeka 15: 17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Aida y vuelta
Domeka 15: 20:00.
Astelehena 16: 20:15.

Zootropolis 2
Domeka 15: 17:00.

Salva Maria
Martitzena 17: 19:00.

19:00 Perubeleren agurra. Udazken taldeko gaiteroak, Batubele Band perkusioa, Koldo Eguzkitza biolinista, Zubiaur musika eskolako umeen koroa eta Zinbulu dantza bertikala taldea. *Zubiondo plazatik Zelaietara.*

J.D. MAÑARIA

Taldearen aurtengo enfokea lasterketarik lasterketa joatea izango dela dio: "Lasterketa bakoitza helburu bat izango da". Horrela bete gura dituzte helburuak. Taldea maila onean ikusi du denboraldi hasiera honetan. Bere etorkizunari buruz galdetuta, 37 urteko mañariarrak aurtengo amaitzen du kontratua eta denboraldi amaieran erabakiko du zer egin, urtean zehar sentitutako sentsazioei kasu eginda.

Denboraldia hasiberria da, baina dagoeneko ibili zara lasterketa batzuetan. Zelan joan dira?

Denboraldiaurrean dena oso ondo joan zen, ezin hobeto. Hiru astez Sierra Nevada kontzentratuta egon nintzen, eta, gero, beste hamar egunean Altean. Denboraldia ere ondo hasi nuen: Castelloko klasikoan ihes egin da ibili eta gustura sentitu nintzen. Baina hurrengo hitzorduan, Mallorcako Tramuntana klasikoan, birus indartsu batek harrapatu eta oso ahulduta utzi ninduen: gogo txarra, botaka... Valentziako Itzulira justu-justuan heldu nintzen eta apurka joan naiz errekupeztzen.

Aurtengo taldean dagoen izen berri bat Jonathan Lastra da. Zer eman diezaioke taldeari?

Jonathanek oso emaitza onak lortu zituen Caja Ruralek egon zenean. Lehiatzeko askatasuna zuen eta edozein ibilbidetan oso ona dela erakutsi zuen. Gero, Cofidisen, beste lan bat egitea egokitu zaio, baina oso maila onean ibili da. Esperientzia horregaz batu da taldera. Badakigu maila ona duela eta seguru nago emaitza onak lortuko dituela. Ilusioz ikusten zaio, gustura dago hemen eta gauzak oso ondo joango zaizkiola uste dut.

Zeintzuk dira zure helburuak eta taldearenak aurtengo?

Helburuak berdinak dira biontzat. Ahalik eta mailarik onena ematea lasterketa guztietan, bai taldea bai ni erregularrak izatea, eta ahalik eta emaitzarik onenak lortzea. Gauza dezente gertatu zaigu hasiera honetan: Mallorcan talde erdiak birus bera hartu zuen, Valentzian Txomin Juaristik klabikula apurtu zuen erori batean... Baina taldea ondo ibili dela eta nahiko emaitza onak lortu ditugula esango nuke.

"Nire bizimoduagaz erraza egiten zait ziklismoak eskatzen duena eramatea"

MIKEL BIZKARRA ETXEGIBEL EUSKALTEL EUSKADIKO TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Ziklista mañariarrak hamabosgarren denboraldia hasi berri du errepidean. Bere esperientzia zabala eta kalitatea talde laranjaren zerbitzura ipiniko ditu beste behin ere. Erretiroa zalantzan du



Mikel Bizkarrak, joan zen astean, Valentziako Itzuliko etapa batean. EUSKALTEL EUSKADI

Itzulia izango duzue hitzordu nagusia?

Bai. Etxeko lasterketa da, afizioa bide ertzean animatzen... Tourrera joatearen modukoa da. Itzulia beti izaten da berezia. **Taldeak urte bi daramatza Vueltan parte hartu barik. Zer falta zaio taldeari halako gonbidapen bat lortzeko?**

Iaz ez ginen UCIko rankingean 30 onenen artean sartu. Orduan,

"HASIERA HONETAN TALDEA ONDO IBILI DELA ETA NAHIKO EMAITZA ONAK LORTU DITUGULA USTE DUT"

hasieratik genekien aurtengo ere ez ginen Vueltan egongo. Helburu bat, normala denez, 30en artean sartzea da. Aurtengo karrerarik karrera joango gara eta gauzak ondo badoaz egongo da momentua horretan pentsatzeko. Azken urteetan, hasieratik borroka horretan ibili gara eta gauzak perfektu irituten ez direnean... presio hori hor dago eta gaxago bihurtzen da. Aurtengo karrera bakoitza helburu bat izango da. Ahalik eta ondoan egin eta gero, hurrengoan pentsatu, horixe izango da enfokea. Gauzak ondo badoaz, borroka horretan egon gaitezkeela uste dut eta ea, ba, aurtengo lortzen dugun hor sartzea, berriro Vuel-

tara itzultzeko aukera izateko. **Zuen maila berdinekoa den Caja Rural taldeak gonbidapena jaso du Frantziako Tourrerako. Zer erakusten du horrek zuen moduko taldeentzat?**

Caja Rural gure mailako taldea da, baina aurrekontu aldetik eta ez daukagu zerikusirik. Aurrekontu handiagoa dute. Baina, egia esanda, Caja Ruralek urte asko daramatza txirrindularitzan

"BALITEKE URTE HAU NIRE AZKENA IZATEA; IKUSIKO DUGU ZELAN DOAN ETA ORDUAN ERABAKIKO DUT"

pausoak ematen, eta amets bat egia bihurtzea lortu dute aurtengo. Alde horretatik, ispilu bat izan daiteke, apurka-apurka gora eginez horra heldu daitezkeela erakusten duena. Badakigu ez dena egun batetik bestera lortzen den gauza bat, baina, denboragaz, gauzak ondo eginda eta ahalik eta emaitzarik onenak lortuta... baliteke aukera hori hor egotea etorkizun batean.

Aurtengo 38 urte egingo dituzu. Zerk mantentzen zaitu motibatuta?

Gustatu egiten zait egiten dudana. Horixe da garrantzitsua. Sakrifikatzen denari buruz berba egiten da, baina nire bizimoduagaz erraza egiten zait txirrindularitzak eskatzen duena eramatea, errazagoa da etxetik kanpora denbora ematea. Horrez gainera, entrenamenduak edo garaieran egindako egonaldiak ondo eramaten ditut. Hori bai, lasterketetako estresa geroago eta handiagoa da, korritzeko modua asko aldatu da ni hasi nintzenetik. Hori gehiago kostatzen zait, baina prestakuntzari edo etxetik kanpora egoteari dagokionez, ez dut inongo arazorik.

Noiz arte ikusten duzu zeure burua tropelean?

Ba, ez dakit. Nire kontratua aurtengo amaitzen da, eta, tira, posible da nire azken urtea izatea, baina ikusiko dugu urtea zelan doan, eta orduan erabakiko dugu. Denboraldia hasi baino ez da egin. Nire hasiera ez da onena izan, birus horregaitik, baina urtea luzea da eta joango gara ikusten nola doan, zer mailatan nagoen eta zelan sentitzen naizen; eta horren arabera erabakiko dut azken urtea den ala jarraitu gura dudana. Kontuan hartu behar da nire hamabosgarren denboraldia dela; urteak dira eta balantza horretan ikusi beharko da gozatzen nabilen, gustura nagoen ala sufrimendua den. Ikusiko dugu.

Mikel Bizkarra, Mañariko eskalatzaile nekaezina



Eskalatzaile petoa
53 kilo dituen eta 1,65 metro garai den igotzaile espezialista da.



Podiumak eta garaipenak
Garaipen sonatua lortu zuen Aragoiko Itzuliko etapa batean, 2018an.

Mendiko sailkapena
Aragoiko itzulua (2018)
Valentziako Itzulua (2024)
La Route d'Occitanie (2025)



15 urteko esperientzia
2011tik profesionala da;
ibilbide egonkorra eta luzea osatu du.



ARAGOIKO ITZULIA: 2.
(Sailk.Nagusia)
2018

ASTURIASKO ITZULIA: 4.
(Sailk.Nagusia)
2022

PORTUGALGO ITZULIA: 5.
(Sailk.Nagusia)
2024



JOKALDIA

KARMELE GISASOLA ZENIKAZELAIA HERRI KIROLAK

Eta nola aldatzen diren garaiak...

Gure amonen sasoian, nola esan emakume batek harria altxa nahi zuela, edo, orokorrean esanda, kirola egin nahi zuela. Nahiko lan bazuten etxaldean. Baserriko andrekin abereez, jatekoaz, etxeaz eta umeez arduratu behar. Kirolariak plazan ikustera joateko ere nahiko denbora ez, horretan hastea pentsatzeko aukerak ere gutxi. Oso emakume gutxi zeuden kirola egiten zutenak, baina egun guztian ez ziren gelditu ere egiten. Gaur egun kirola egiten duten emakumeak bezainbesteko beso motzak izango zituzten. Baita abilezia eta indarra ere. Baina plazetan lekurik ez. Hurrengo generazioak salto bat eman eta apurka-apurka hasi ziren geroz eta emakume gehiago kirola egiten, herri kirolean ere bakanen bat ateratzen plazara, baina txapelketak egiteko aukera gabe. Baina oraindik ere oztopo askori aurre egiteko beharraz.

Gure generazioan jada hasi zen egoera “normalizatzen” eta emakumeak ere erakutsi du badagokiola

"GURE GENERAZIOAN EMAKUMEAK ERE ERAKUTSI DU BADAGOKIOLA TOKIA ESPARRU GUZTIAN"

"BAINA ORAINDIK BADAGO LANA EGITEKO. ESPARRU BATZUETAN LOTSA ETA BELDURRA NABARI DIRA"

tokia esparru guztietan. Gu ere bagarela nor plazan, frontoian eta lasterketetan aritzeko. Baina oraindik ere lana dago egiteko. Esparru batzuetan oraindik ere lotsa eta beldurrak nabari dira. Publikoaren aldetik ere ez dira beti berdinean betetzen frontoi eta plazak.

Berdin beteko lirake emakumezkoen estadio, frontoi eta plazak gizonen kirol ikuskizuna ikusteko ordaindu behar den zenbateko berdinarekin? Hor sortzen dira zalantza eta beldurrak. Orain, askotan, jaialdi berean sartzen dituzte gizon eta emakumezkoak. Ez da toki eta esparru guztietan berdinean, noski.

Egoera edozein delarik ere, aurrerapausoak eman dira. Eman zituzten, ematen gabilta eta emango dituzte. Bidea beti ez da behetik goranzkoa izaten, tartean gora-beherak daude eta helburua edozein delarik ere, gogoratu bideaz gozatzea dela garrantzitsua.

OROIGARRIA

UTSAILAK 13, BARIKUA
09:00-09:00
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miquel 15 - Zornotza
UTSAILAK 14, ZAPATUA
09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
UTSAILAK 15, DOMEKA
09:00-09:00
Mugica, Andra Maria 9 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
UTSAILAK 16, ASTELEHENA
09:00-09:00
Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miquel 15 - Zornotza
UTSAILAK 17, MARTITZENA
09:00-09:00
Bazan, Uribarri 5 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miquel 15 - Zornotza
UTSAILAK 18, EGUAZTENA
09:00-09:00
De Diego, Intxaurreondo 22. - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miquel 15 - Zornotza
UTSAILAK 19, EGUENA
09:00-09:00
Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miquel 15 - Zornotza

ZORION AGURRAK



Txomin
Zorionak, **Txomin!** 10 urte jada etorri zinela gure bizitzetara. Jarraitu zaren bezalakoa izaten. Disfrutau egune eta besarkada handi bat familia guztiaren partez. Asko maite zaitugu!

Urte askotarako!

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *agenda@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaitez Anbotoren ordezkaritzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

ZORIONAK **OINATZ (1051.ALEA)!**
HAMABOSTEAN BEHIN ZOTZ EGITEN DUGUN TARTA ZURI EGOKITU ZAIZU. OPARIA ESKURATZEKO TXARTELA GURA DUZUNEAN JASO DEZAKEZU IURRETAKO GURE EGOITZAN.

GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO

Tel.: 946 201 663

gozatudurango@gmail.com

661 40 14 00

Gozatu Gozotegia

gozatugozotegia

OROIGARRIA

Javier Arroitauregi Zabala

Ikastolako bazkide laguntzailea

Une latz hauetan Ikastolak bat egiten du familiaren saminarekin

IBARRETXE KULTUR ETXEAN

ANTZERKIA BULTZATUZ 2026

Otsailak 20 18:00

Zaintzaren dantza

Haurrentzat

SARRERAK

Urteak 1€ / Helduak 3€

Sarrerak hartzeko Ibarretxe Kultur Etxean

BERRIZKO AGENDA KULTURALA

HAMNET - CHLOÉ ZHAO

Otsailak 15 19:00

NOR NAIZEN BANEKI - ARTEDRAMA + AXUT!

Otsailak 21 19:00

HODEI GUZTIEN GAINETIK - MARKELINE

Otsailak 22 12:30

INMOBILIARIAK



IZURZA (PABILIOIA) 261 m²-ko pabilioia. 10,50 m-ko altuera. Aire-instalazioa. Karga-jasogailua eta polipastoa.



DURANGO 79m². 3 logela, sukalde handia, komuna lehiorekin eta egongela balkoiarekin.



MATIENA (Trañabarren) 112m². 4 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin eta egongela terrazarekin. Trastelekua.



SAN INAZIO AUKERA. Garajea.



BASERRIA BERRIZTATUA. 436m². 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. Garaje itxia. 4 hektareako lursaila.



ETXEBIZITZAK SALGAI BERRIZ

Duplexa salgai. 4 logela, sukaldea, egongela, 3 komun eta 3 bainugela. garajea eta trastelekua.

DURANGO

Goienkalea: 65 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia.

Kurutziaga: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatzeko.

Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.

Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.

Goienkalea: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna.

ATXONDO

Atxondo: 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gasa.

Atxondo: 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAILAK SALGAI

Urrutxua: 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.

BASERRIAK ETA TXALEIAK SALGAI

Iurreta: Baserri erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatzeko.

Muxika: Urrutxua: 90.000 m²-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria. **90.000 €.**

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIKIRUAN ABADINO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

DURANGO

Ermodo kalean. 100 m². 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIKIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

Elorrio: 600 m²-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI BERRIZ

Berriz: Eitua industrialdea. 180 m²-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan.



DURANGO Sasikoa: 68,18m². Halla, egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Ur beroak eta berogailuak gas naturalarekin funtzionatzen dute. Etxe osoak kanpora ematen du. Zerbitzugunez inguratuta. Garaje itxia eta ganbara.



DURANGO San Fausto: 47,66m². Egongela-sukaldea (jantzia), jangela, 2 logela eta komuna duxarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Apartatzeko erraztazuna. ITE-a pasatutakoa.



DURANGO Anboto kalea: 70 m². Egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du. Iparraldea. Leku onen kokatuta. Zerbitzuguneak. Berrikuntzak behar ditu. Igogailua. ITE-a pasatutakoa.



ABADINO San Trokaz: 33,65 m². Egongela-sukaldea-jangela, egongela horma-armairuekin eta komuna duxarekin. 122,20 m²-ko lursaila. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea) Argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak gertu eta apartatzeko erraztasuna.



BERRIZ Agirre Lehendakariaren pasealekua: 85m². Halla, egongela, sukalde jantzia handia, 3 logela eta komuna berriztatua duxarekin. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialde-mendebaldea) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Teilatua eta fatxada eraberritua (SATE) eta duela gutxi instalatu den igogailua du.



BERRIAK DURANGO

Goienkalea kalea: logela, sukaldea egongelarekin eta komuna. Igogailua. **160.000 € / E.E:Z=F**

DURANGO

Andra Mari: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. **240.000 € / E.E:Z=E** igogailu obra erosleen gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero **270.000 €.**

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E:Z=F**

E.Bustintza Kirikiño kalea: 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. **150.000 € E.E.Z=G**

Zumar parkea: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 terraza. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **400.000 € / E.E:Z=E**

ABADINO

Dendarikoa: Zaharbertitzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**

Eskolakoa: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 325.000 € ORAIN 300.000 € / E.E.Z=G**

ATXONDO

Artekalea, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. **300.000 €.**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitzeo baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

Eitua: Berreraikitzeo baserria lursailarekin. **LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €**

GARAI

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA

Zubiaurre: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **198.000 € / E.E.Z=F**

GARAJEAK SALGAI/ALOKATZEKO

DURANGON SALGAI

Alluitz: Garaje itxia. **24.000 €.**

Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**

Kurutziaga: Garaje itxia **22.000 €.**

Madalenoste: Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**

DURANGON ALOKAGAI

Muruetatorre: Garajea. **75 € / hilean.**

Antso Eztegiz: **45 € / hilean.** Motorrentzat egokia. Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

Plateruen plaza: Garajea. **75 € / hilean.**

Montebideo etorbidea: Garaje itxia. **90 € / hilean.**

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI/ALOKATZEKO DURANGON SALGAI

Andra Mari kalea: 76 m²-ko lokala. Salgai: 90.000 / Alokagai: **800 € hilean / E.E:Z=E**

Komentu kalea: 30m²-ko lokala guztiz berriztuta. **65.000 € / E.E:Z=F**

San Martinpe Ataria: 12 m²-ko lokala. **25.000 € / E.E:Z=F**

Aliendalde: 285 m²-ko pabilioia. **250.000 €.**

IURRETA



LAU-HORTZA

JASONE AGIRRE
GARITAONANDIA

Zuri

Lerrook irakurtzerakoan ipiniko duzun aurpegia irudikatzeak emango didan barregura hutsa-rengatik; zuri irribarrea, eta akaso, baita barre algarra ere eragiteagatik; hurrengoan botako dizkidazunak entzutearren idazten dizut hau zuri. Horregatik, baina ez horregatik bakarrik.

Aurrekoan, hemen Anboton idatzi nuena irakurri ostean, izotz kubotxoak egiteko makina oparitutako didazula esan zenidan. Beti bezain eskuzabal zu. Nik kafetera bat agindu nizun bueltan; kafetera ziztrin bat baino ez. Horregatik ere idazten dizut hau zuri. Zeozer berezia oparitu gura dudanean idatziriko berbak opari ohi ditut. Hartu hauek, mesedez.

Ezagutzen zaituztenek irudikatu ahal izango zaituzte; nor zaren ez dakitenek beharbada nire irudimenak sortutako pertsonaia izan zintezkeela pentsa dezakete ere, edo biak batera, zergatik ez.

Momentu honetan non zauden ez dakit; ez al da magikoa hori? Norberen bakardadean idatzitakoa beste batek bere bakardadean irakurtzea? Eskurik esku irudikatzen dut Anbotoren aletxo honek egin duen bidaia zeu zauden lekuraino heltzeko, zauden lekuan zaudela. Nondik nora ibiliko ote zara orain? Non irakurtzen ari zara hau? Magia hori egiteagatik ere idazten dizut hau, baina batez ere, idazten dizut "ongi etorri" esateko zuri.

AKUILUA

"Inauterietan Abadiñoren loratzea ospatuko dugu"

GONTZAL ROYUELA ETA AMAIA AZKARATE ABADIÑOKO MITIÑOAK

Anbotoko Damaren eta jentilen babespean, mitiñoek Kokomarrori aurre egingo diote inauterietan. 'Inua' jantzi eta ospakizunean parte hartzera deitu dituzte abadiñarrak

Aitziber Basauri ABADIÑO

Lurraren iratzartzea, loratzea, ospatuko dute Abadiñon asteburuan. Anbotoko Damaren deia erantzunez, mitiñoek jentilak esnatuko dituzte, elkarregaz Kokomarro eta kokilak herritik kanporatzeko. Inauteria ospatzeko, arropa zaharrak eta 'inua' koloretsua jantzerat deitu dituzte abadiñarrak. Gontzal Royuela eta Amaia Azkarate kalera irtengo diren mitiñoetariko bi dira. Abestia eta dantza ere sortu dute.

Non dute jatorria mitiñoek?

Amaia Azkarate: Inauteriari norabide berri bat emateko gogoia genuen. Inauteria kritikarako eta adar-joka aritzeko baliatu izan da. Baina azken urteetan zentzua galdu duela uste dugu. Bakoitzak bere moztorra jantzita, bere kabuz ospatu du eta kontsumismoa bideratutako jai bihurtu da apur bat.

Gontzal Royuela: Ikertzen hasi ginen eta jakin genuen Abadiñon Kokomarro egon zala; inauterietan, trapu zaharrekin eta aurpegia estalita sustoa ematera irteten zen pertsona bat zen. Horri tes-tuinguru bat emateko, eta euskal mitologiak Durangaldean duen indarra baliatuta, kondaira bat sortu dugu; Urkiolan hain erro-



"MITIÑOAK JENTILAK
ESNATU ETA
KOKOMARRORI AURRE
EGITEN DIOTEN
HERRITARRAK GARA"

tuta dauden jentilak eta gu denok babesten gaituen Anbotoko Dama agertzen dira bertan. Mitiñoak jentilak esnatu eta Kokomarro maltzurari aurre egiten dioten herritarrak dira. **Zer dio kondairak?**

A. A.: Abadiñon hainbat izaki

bizi zen, Kokomarro eta kokilak –bere laguntzaileak– heldu ziren arte. Kokomarrok eta kokilek inguruko mendi eta lur guztiak sutsitu zituzten, eta abadiñar askok ihes egin zuten. Baina jentilak bertan geratu ziren, ezkutatuta, Kokomarrok noiz alde egingo. Hainbeste itxaron zuten ze, harri bihurtu ziren.

G. R.: Abadiñoren eta pertsonaia horien loratzea ospatuko dugu zapatuan. Mitiñoak Anbotoko Damagaz elkartuko gara plazan, bakoitzak harriak dituela eskuan. Harriak elkar jota, jentilak eta lurra esnatzeko erri-tuala egin, eta denok kalejiran irtengo gara Kokomarraren bila. Behin harrapatuta, plaza-ra ekarri eta herritik kanporatzeko dantza egingo dugu. Kokomarro Gaztetxean gordeko dugu, martitzenean erre arte.

A. A.: Urteko gauza txar guztiak erreko ditugu Kokomarro gaz batera. Jaia kritika egiteko ere baliatu gura dugu.

Azken urteetan inauterien loraldia izaten ari dela uste duzue?

A. A.: Bai. Beharrezkoa zela uste dut, noraezean zihoazelako, kontsumismoak aurrean eramanda. Inauteriei zentzu bat eman behar zaiela uste dut.

Zelako harrera izan duzue herrian?

G. R.: Oso ona! Aurkezpena jende asko etorri zen eta abestia eta dantza ikasteko prest daude.

A. A.: Lana errazteko, 'inuak' prestatu ditugu eta denak saldu ditugu. Uste baino harrera hobea izan dugu.

Datorren urtean ere bueltatuko dira?

G. R.: Urteko ohitura bihurtzea eta errotzea gura dugu, eta herritarrek parte hartzea.



Smurfit
Westrock
Central Forestal

+55 urte Euskadiko
pinudiak zaintzen



Smurfit
Westrock
Nervión

Etorkizun hobe baterako
enbalaje iraunkorrak